

HEZKUNTZA

Proposamen berrietarako ahalegina egin du EILASek



Gatazka politikoa eta hezkuntza sistema aztertzeako antolaturiko jardunaldian hezkuntza ziklo guztietako profesionalek hartu zuten parte. • INIGO AZKONA

Hezkuntza sistema eta indarkeria politikoaren gainean hausnartzeko eta aterabideak proposatzeko jardunaldia antolatu berri dute

Mikel Basabe • Leioa

Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako campuseko Zientzia Fakultatean izan zuten hitzordua Euskal Herriko hezkuntza sistemako behargin guztiek. Irakaskuntza arloko EILAS sindikatuak deiturik, *Hezkuntza sistema eta indarkeria politikoa* izan zuten azterketarako gai jardunaldian parte hartu zuten 110 lagunek: horietako gehien-gehienak, hezkuntza sistemako ziklo guztietako irakasleak; baina, horiekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-kideak ere izan ziren tartean.

Egun osoko jardunaldiak alde bi izan zituen: goizean, harrera eta material banaketaren ostean, mahai ingurua egin zuten. EHUko kide eta hezkuntza sistema eta euskalduntzean aditu den Txoli Mateos, EHUko irakasle den Ramon Zallo eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuorde Alfonso Unzeta izan ziren horretan hizlari.

Eguerdian, indarkeria egoe- rekin esperientzia dutenen berri izateko aukera izan zuten parte-hartzaileek: Alex Marañonek, Gasteizko Mitxelena IESeko ikasketaburu Afro Olabek, Euskal Herriko Guraso Elkartearen lehendakari Ana Izagirrek eta EHUko Antonio Dupla irakasleak egin zuten berba.

Lan taldeak

Goizean hausnarketarako bitarteko izan gura zuten ekitaldiak egin ostean, arratsaldean lan taldeak osatzea etorri zen, hausnarketa horri alde praktiko eman, eta konponbide izan litezkeen proposamenak egiteko. Horren haritik, EILASeko

bozeramaile Joseba Gallastegik argi du: «Irakaskuntzak zeresana izan behar du, gatazka politikoaren inguruan. Baina jakin egin behar dugu arazoak nola konpondu ezin izango duela hezkuntza sistemak esan, gizarteak berak jakin beharko duela nola konpondu».

Mugak non dauden jakitun, Gallastegik helburu zehatza ipini zion hezkuntza sistemaren eta gatazka politikoaren arteko aritzeko antolaturiko jardunaldiari: «Zehaztapen maila da desafioa; ikastetxeetan zer egin dezakegun zehaztu, proposamen egingarriak, eta, beste alde batetik, sindikatuei ere zer proposatu ahal diegun».

Helburu horiek hobeto lortzeko, lau talde egin ziren arratsaldeko saiorako: Lehenengo hezkuntzako 30 lagunek hartu zuten parte euren taldean; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 60 lagunak talde bitan banatu zituzten, eta, azkenik, unibertsitatean diharduten 20 parte-hartzaileak beste talde bat osatu zuten.

«Hezkuntza sistemak ez du esango gatazka politikoa nola konpondu; hori gizarteak berak esango du»

Ondorioak

Lan talde bakoitzak bere hezkuntza ziklorako baliagarriak izan litezkeen proposamenak lortzeko ahalegina egin zuen; horrela, Lehen Hezkuntzako irakasleen ustean aurrezaintza da bultzatu beharrekoa, eta balioetan heztearen ere bai. Horretarako, eskola material espezifikoa sortzeko eskatu zuten, bai eta administrazioaren inplikazio handiagoa, bitarteko eta laguntza egokiak aukeratzeko.

Bigarren hezkuntzako esanetan, beharrezkoa da esperientziak trukatzeko, bai eta akordioaren alde behar egitea ere. Inkomunikazioa arazo handia dela iritzirik, ikastetxeko talde guztien arteko komunikazioa eta irakasleen arteko bultzatu beharra ere ikusi zuten. Irakasleen utzikaria ote dagoen ere aztertu zuten, eta aginte kontzeptua berriro eztabaidatu behar dela adierazi.

Unibertsitateko lan taldekoek, azkenik, gatazka egoeraren kudeaketa gatazka bera ez elikatze moduan egin dadila proposatu zuten; kide guztien arteko elkarriketa eskatu, eta eskaera politikoaren tratamendua guztien artean hitzartu beharra dagoela ere esan zuten.

Historiaz eta gizartearen egoeraz hitzaldi sorta antolatu dute

Gaur bertan, eguerdiko 12:00etan, Gurbitzen aretoan Geografia eta Historia sailak duen bilera aretoan, sail horrek historiaz eta gaur egungo gizarteaz jarduteko antolatu duen hitzaldi sorta-ko lehenengoa egingo dute: *Emigrazioa, anizkulturasuna eta hezkuntza*. Gure gizartearen errealitate bat eskolan izenburuko hitzaldia emango du Rakel Oteitza irakasleak. Datorren asteazkenean, hilaren 9an, leku eta ordu berean, *Kristautasunaren sorrera Nafarroan* hitzaldia emango du Roldan Jimenok. Hitzaldi zikloa amaitzeko, ostera, Fernando Mendiola irakasleak *Genero eta lan merkatua industrializazioaren hasieran*. Nafarroa eta Bizkaiko kasuak hitzaldia emango du.

Hitzaldi guztiak euskaraz izango dira; interesa duen edozeinek hartu ahal izango du parte, eta entzule eta hizlarien arteko eztabaida piztea izango da hitzaldion helburuetako bat.

EHU

Medikuntza Fakultatean protesta egin dute Euskal Adarrekoek

Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza Fakultateko ikasleek protesta egin zuten joan den ostiralean, euskaraz ikasteko dituzten aukerak urriak direla salatzeko.

Euskal Adarra taldeak biltzen dituen ikasleek salatu zuten, Medikuntza Fakultateko irakasleetatik %5 baino ez dira euskaldunak. Irakasleen kopuruari erreparatu gero, ostera, euskaldunen kopurua %33ra igotzen dela ziurtatu dute.

Horrekin batera, Euskal Adarrekoen esanetan, 2. ziklo osoa euskaldundu barik dago oraindik; hori horrela, enborrezko 24 ikasgai gaztelaniaz baino ezin dituzte ikasi medikuntzakoek.

Hori guztia salatzeke, errektorearen aurrean protesta egiteko erabakia hartu zuten EHUko Medikuntza Fakultateko Euskal Adarreko ikasleek.